

## **POLITIKAZ BI HITZ, OBJETOA ETA SUBJETOA**

Funes (2006.1.18)

Politika azieroen bidez neurtzen den zientzia da. Axioma honen arabera esan dezakegu Euskal Herrian hainbat urteetan ez dela herriaren aldeko politikarik egon, indarra erresistentzia espontaneora eta sentimenduetara bultzatu delarik. Herriak jasaten duen desgaste eta porrot politikoak arerioaren garaipenak bihurtzen dira automatikoki, politika indar erlazioa neurtzen duen zientzia bait da. Batek galdu besteak irabazi.

Indar politiko hauek orekan daudenean subjeto politikoak direla esaten da, baina oreka hori mantentzen ez denean indar zapaldua objeto politiko dela esaten da. Objeto politikoak ez daki bere indarra arerioaren aurka era politikoan erabiltzen eta beste honen presiopean amore ematera derrigorturik aurkitzen da. Bere indarrak bide politikora bideratu ezean desagertu egingo da eta agente politiko izateari utziko dio betirako. Ez du jada subjeto politikoaren oreka aldatzeko ahalmenik, bukatu da, ez da indarrik gehiago.

Tamalez Euskal Herria objektu politiko da oraindik ere, ez da gai bere indarra plano politikoan erabiltzeko, hori lortuko balu subjeto politiko izatera heltzeko haina indarririk baduela uste uste dugu ordea, horrexegatik da hain zuzen objektu politiko.

Egun arerioaren estrategia nagusia gure indarrak maila politikora ez heltzean oinarritzen da, bere beldurrik handiena herriak askatasunera eramango duen klase politiko berri batekin topa egitea da eta hau gerta ez dadin ahalegintzen da, aldi berean herria maila politikora eramango ez duen mugimendu oro promozionatzen du.

Gure arerioen helburu politikoak Euskaldunon desagertzea da. Herria guztiz espainola edota frantsesa bihurtu arte ez du etsiko guk eragotzi ezezik. Momentu bakoitzean eskura izan dituzten baliabide guztiak erabili dituzte gure aurka egiteko, gerra, emigratio masiboa, bonbaketa, "gora euskadi askatuta", "errepublika", ... edozer Euskal Herria suntzitzeko.

Beraz zer egin gure egoera tamalgarri honetatik ateratzeko?

Herri honek duen gaitz handi bat, (hau ere bere objektu politiko egoerari egotsi beharrekoa) politika zer den ez ulertzearena da. Politika garaipena da. Egungo egoera politikoan herriari garaipenik ematen ez dioten agenteak identifikatu eta alboratu beharra daukagu, estrategia eraginkor bat diseinatu eta garatuko duen klase politiko berria bultzatu beharra daukagu. Ez da gutxi!

Gaur egun oraindik Euskaldunak bagara, inoiz politika egin izan dugulako da. Inoiz subjeto politiko izan geralako da, estatu bat sortu dugulako da, biolentzia instituzionalizatu dugulako eta politika internazional egoki bat izan dugulako da, gure arerioekin indar erlazio batean neurtu eta mantendu izan garelako da.



Baina gaur politikari uko egiten jarraitzen badiogu, lehenago edo beranduago gure herria hil eta desagertu egingo da eta gure arerioek hori jakin badakite.